

EAEko herritarrek ekintzailletza nola hautematen duten

- EAEko hamar pertsona heldutatik lauk (% 40,1) uste dute ekiteko beharrezko ezagutza eta gaitasunak dituztela. Dena den, ekiten dutenen artean, ezagutza hori dutela uste dutenen ehunekoa askoz altuagoa da (% 79,1).
- Hamar heldutatik seik adierazi dute porrot egiteko beldurra oztopoa dela negozio bat abian jartzeko. Ekintzaileen artean, ehuneko hori % 39,5era jaisten da. Gainera, ekiteko ezagutza eta gaitasuna dutela uste dutenen artean, porrot egitearen beldur diren EAEko helduen ehunekoa erdia baino gutxiagoa murrizten da (% 20,3).
- Ehunekoa areagotu ez den arren, porrotari beldurra izatea faktore inhibitzaile oso nabarmena izaten jarraitzen du inguruko beste herrialde batzuekin alderatzen bada.
- Herritarren % 26,2k ekiteko aukerak antzematen ditu epe laburrean. Datu hori pandemia garaian erregistratutako datua (% 16,5) baino hamar puntu altuagoa da, baina 2019 urteko datua baino askoz txikiagoa da oraindik (% 40,1). Datu txikia da EBko batezbestekoarekin alderatzen bada (% 47,3).
- Negozio bat hastea erraza delako pertzepzioa ere ahuldu egin da aurreko urtearekin alderatuta: helduen % 36k hala uste du (2011n % 42,5). Ekiten dutenen artean, ehunekoa antzekoa da (% 37).
- Dagoeneko ekin duten pertsonen ezagutza pixka bat altuagoa da ekintzaileen artean (% 54,1) helduekin oro har (% 35,3) alderatzen bada. Gainera, % 43ren ustez, ekitea lan aukera ona da; eta ehunekoa ez da areagotzen ekintzaileen ehunekora (% 41,6) mugatzen bagara.
- Gizonezkoekin alderatuta, EAEko emakume helduen ehuneko txikiagoak uste du ekiteko ezagutza eta gaitasuna duela (% 36,2 emakumek eta % 44,1 gizonek), negozio bat hasteko oztopo handiagoa da porrotari beldurra izatea (% 62,4 emakumek eta % 56,6 gizonek) eta emakume gutxiago dira ekin duten norbait ezagutzen dutenak (% 32,9 emakumek eta % 37,8 gizonek). Nolanahi ere, alde horiek desagertu egiten dira ekintzaileen datuak aztertzen direnean.

EAEko helduen ekintzailletza dinamika eta jarrera

- EAEko *Jarduera Ekintzailearen Tasa* (TEA) pixka bat igo da aurreko urtearekin alderatuta. 2022an, 18 eta 64 urte arteko herritarren % 5,2 zegoen sartuta 3,5 urte arteko negozio berri bat sortzeko prozesuan (2021ean % 4,9). Adierazle hori 2004 urteaz geroztiko batezbesteko historikoarekin alderatzen badugu, 2022ko Euskadiko TEA batezbesteko horretatik 6 hamarren igo da (% 4,6), eta horrek berreskurapen egonkoraren bidea finkatzen du 2010eko hamarkadaren ostean, non ekintzailletzaren ohiko tasak % 4tik beherakoak ziren.
- Fase finkatuan dauden ekintzaileen kopurua berriro jaitsi da hirugarren urtez jarraian, eta orain % 4,9 da, 2004-2022 aldian adierazle horren batezbestekotik (% 6,7) ia bi puntu gutxiago.

- laztik pixka bat jaitsi den arren, ekintzailetza potentzialaren tasak altua izaten jarraitzen du (% 7,6) bilakaera historikoarekin alderatuta. Aitzitik, 2004-2022 aldiko batezbestekotik (% 5,6) bi puntu igo da.
- EAEko herritarren % 1,7k negozioa utzi zuen 2022an. Hala ere, horien parte nabarmenak (% 38,1) jabetza berri batean lanean jarraitu zuen. Hortaz, 2022ko itxiera tasa errealak % 1 da. Abandonatzea azaltzeko erabiltzen duten arrazoi nagusia da errentagarritasun falta (% 40,4). Arrazoi hori asko areagotu da aurreko urtearekin alderatuta (% 23,4).
- Ekintzailetzari lotutako genero arrakalaren desagerpena finkatu da. Hirugarren urtez jarraian, ez dago alde nabarmenik gizonen TEAren eta emakumeen TEAren artean.

EAEn ekiten duten pertsonen profila

- EAEn hasierako fasean dauden ekintzaileen batez besteko adina egonkor mantentzen da. 2022an 43 urte da, 2021ean baino bat gutxiago, baina 2005-2022 aldiko batezbesteko historikoa (40 urte) baino 3 urte gehiago. Dena den, 2021 eta 2022a, 43 eta 44 urterekin hurrenez hurren, EAEko TEAren batez besteko adinik altuena kateatu duten serie historikoko (2005-2022) bi urteak dira.
- Fase finkatuan dauden ekintzaileen zahartze progresiboa finkatu da. 51 urterekin batez beste, 2005-2022 serie historikoaren batez besteko adinetik gora dago modu nabarmenean (48 urte).
- Serie historikoaren batezbestekoarekin alderatuta (38 urte), 2022an batezbesteko adin hori gainditzen ez duen ekintzailetza prozesuko etapa bakarria ekiteko asmoa duten herritarrena da (37 urte).
- Nazioartean alderatuta, hasierako fasean dauden ekintzaileen adin bereziki handiagatik nabarmentzen da EAE. Diru sarrera altuak dituen herrialde taldeari dagokionez, EAE lehena da TEA ehunekoan 35-44 adin tartean (TEAren % 41,3 adin tarte horretan dago); hirugarrena 55-64 urte arteko TEAren ehunekoan, eta azken aurrekoa 25-34 adin tarteari dagokion TEAn (soilik Japoniak gainditzen du).
- Goi mailako ikasketak eta graduondokoak dituzten ekintzaileen (balizkoa eta TEA) ehunekoa igo da. EAEko TEAren % 62,6k unibertsitateko ikasketak ditu (2021ean % 58,8k). Balizko ekintzaileen kasuan, ehuneko hori % 58,6 da (2021ean % 52,6). Gainera, TEAren ia % 40k uste du prestakuntza maila altua duela enpresaren sorrerari lotutako gai espezifikotik. Nolanahi ere, ehuneko hori % 23,2ra jaisten da finantza gaiei lotutako ezagutza mailari dagokionez.
- Ekintzaileen artean ez dago alde nabarmenik gizon eta emakumeen artean adin eta ikasketa mailari dagokionez.
- Beste lanik ez izateagatik bizimodua ateratzeko ekin duten pertsonen ehunekoa ez da jaitsi (% 69,2), eta 2019an arrazoi horren ehunekotik oso urruti egoten jarraitzen du (% 62,2) Bestalde, aberastasuna edo errenta oso altua sortzeko aukera da ekintzaileen % 27,2k emandako arrazoa (2021ean % 34,7); hau da, oso urruti dago 2019ko % 67,7tik.
- Ekitea erabakitzeko beste arrazoi batzuei dagokionez, "munduan aldaketa egitea" egonkor mantendu da (% 36,3), eta aipatu behar da "familiaren tradizioarekin jarraitzea" nabarmen areagotu dela aurreko urteekin alderatuta. Aitzitik, ehuneko markara iritsi da datuen serie historikoan (% 29); izan ere, 2019an ekintzaileen % 4,3k baino ez zuen arrazoi hori aipatu.

EAEko ekintzaileek sortutako negozioen ezaugarriak

Jarduera ekonomikoa

- Hasierako fasean dauden proiektuen sektoreen arabera banaketa nahiko egonkor mantendu da. % 62,4 zerbitzu tradizionaleri lotutakoak dira (ez intentsiboak ezagutzen), eta sortutako lau negozioetik ia bat (% 23,3) ezagutzari lotutako zerbitzu intentsiboetan oinarritzen da.
- Industriako sektoreko ekintzailetza proiektuen garrantzia areagotu da (% 7,7; 2021ean, % 4,3), eta lehen sektorean sortutako negozioen datuak egonkor mantentzen dira (% 1,3).
- Generoari dagokionez alde nabarmenak ikus daitezke. Proporzionaliki askoz gehiago dira zerbitzu tradizionaletan ekin duten emakumeak (emakumeak % 70,3 eta gizonak % 55,2). Bestalde, ezagutza intentsiboko zerbitzuak eskaintzen dituzten negozioak sortu dituzten gizon gehiago daude (% 29,2 gizonak eta % 16,9 emakumeak).

Enpleguaren tamaina eta sorrera

- Langileren bat duen TEAREN ehunekoa areagotu da (% 33,8; 2021ean % 29,3). Hasierako faseko negozio bat duten gizonen kasuan, ehuneko hori % 40,6ra iristen da (emakumeen kasuan, % 26,5 da).
- 5 langile baino gehiago dituzten eta hasierako fasean dauden negozioen ehunekoan marka (% 10,6; 2011-2022 aldiko batezbestekoa % 5,9).
- Azken urtean kontratazioaren bat egin duten eta hasierako fasean dauden negozioen gorakada nabarmena (% 31; 2021ean, % 24,7). Negozio finkatuen kasuan, azken urtean kontratatu duen TEAREN ehunekoa handiago da (% 31,3; 2021ean, % 25,3).
- Azken urtean ekintzaileek sortutako enpleguen totalari dagokionez, % 64,2 lanaldi osokoak dira eta % 72,7 lanaldi mugagabeak.
- Hurrengo bost urteetan kontratatzea aurreikusten duen TEAREN ehunekoa mantentzen da (% 50,9). Ekintzaileen ia % 5ak 20 enplegu baino gehiago sortzea espero du denbora tarte horretan.

Berrikuntza

- Sortutako negozioen % 34,7k produktu/zerbitzuetan berritzen du (eskuragarri dagoen serie historikoaren maximoa). % 24,7k tokiko irismeneko berrikuntza maila sartzen du eta ekintzailetza ehunaren % 10ak nazio eta mundu mailako berrikuntzetan oinarritzen du negozioa.
- Genero arrakala nabarmena hauteman da produktu/zerbitzuen berrikuntzan. Ekin duten gizonen % 42,3k arlo horietan berritzen duten negozioak sortu dituzte; emakumeen kasuan, ehuneko hori % 26,5 baino ez da.
- Teknologien edo erabilitako prozesuen berrikuntza aintzat hartzen badugu, TEAREN % 25,1ak mota horretako berrikuntzaren bat erabili du. Gainera, arlo horretan indar handiz berritu duten negozioen ehunekoa areagotu da, bai maila nazionalean (% 8; 2021ean, % 5,2) zein globalean (% 3,9; 2021ean, % 2,9).
- Atzerrian saldu duten eta hasierako fasean dauden negozioen ehunekoa jaitsi da (% 20,4; 2021ean, % 24,7). Hala ere, fakturazioaren % 75 baino gehiago esportatzen duten proiektu multzoaren pisu erlatiboa igo da (% 4; 2021ean, % 1).

Ekintzailetza prozesuaren finantzazioa

- EAEko ekintzaileek etapa horretako lehenengo 3,5 urteetan batez beste 15.000 euro erabili dituzte. Aurreko urtearekin alderatuta, datua mantendu egin da.
- Apur bat txikitu da 10.000 euro baino gutxiagorekin ekin dutenen hasierako negozioen ehunekoa (% 29,5; 2021ean % 33,2).
- Jarduera hasteko 150.000 euro baino gehiago mugitu dituzten negozioen ehunekoa mantendu da (% 16; 2021ean % 18,6 eta 2020an % 8,1).
- Aurrezki pertsonalak erabili ditu % 72,6k (% 33,8k bide hori baino ez du erabili) eta lautik bat (% 26,1) familiak/lagunek egindako ekarpenen bidez finantzatu da.
- Finantza erakundeek funtsezko zeregina izaten jarraitzen dute EAEko ekintzailetza prozesuaren finantzazioan. Ia hiru proiektutatik batek (% 31,1) funts horiek eskuratu ditu eta zituzten finantza beharren ia % 70 ase dute.
- Lautik batek laguntza publikoen/dirulaguntzen programen bidez lortu du dirua. Bide horretatik lortu dute guztizko beharren % 27,1 asetzea, batez beste.
- Sortutako negozioen ia % 5 finantzatzeko inbertsore espezializatuetara edo *crowdfunding* plataformetara jo da (2021ean, % 0,8).
- Oro har, finantzazio iturri bat baino gehiago – aurrezki pertsonalez gain- erabili duten proiektuen ehunekoa handiagoa izan da, aurreko urteetan baino.
- Inbertsio informalaren tasan gehieneko historikoa, EAEko helduen % 4,8an kokatu baita.
- Gehieneko berri bat dugu, *business angel* edo inbertsio profesionalaren profila duten pertsonen inbertsio informalaren ehunekoan (% 14,9; 2021ean, % 7,4).

Digitalizazioa eta jasagarritasunera eta GJHra bideratzea

- Hasierako faseko negozioen % 39,1en iritziz pandemiaren krisiak aukerak sortu ditu, finkatutako negozioek uste dutena baino hamar puntu gorago (% 29,2).
- Hasierako faseko negozioen lautik ia batek (% 23,4) digitalizazio prozesu berriak sartu ditu pandemiaren ondorioz. Finkatutako fasean, ehuneko hori % 7,4 baino ez da. Gainera, TEAren % 45ak teknologia digital berriak erabili nahi ditu datozen 6 hilabeteetan (% 26,6 finkatutako negozioetan).
- Dena dela, hasierako negozioen laurdenak (% 24) uste du teknologia digitalik gabe funtziona dezakeela. Ehuneko hori handiagoa da 45 urtez gorako ekintzaileak kontuan izanez gero (% 30,4).
- Ekintzaileek oso kontuan dituzte ingurumen eta gizarte arloko ondorioak. % 75en iritziz ingurumen ondorioak ditu kontuan; % 61,8k gizarte arlokoak eta % 56,1ek lehentasuna ematen diete ondorio horiei beraien negozio ereduari.
- Ekintzaileen erdiek baino gehiagok (% 55) ingurumen eragina txikitzeko neurriak hartu dituzte eta % 41,1ek proiektuaren eragin soziala maximizatzekoak hartu dituzte. Azkeneko joera hori handiagoa da finkatutako negozioekin alderatuz gero (% 29,7).
- Ekintzaileen ia heren batek –hasierako fasekoek nahiz finkatuek- badaki *Garapen Jasagarriko Helburuak (GJH)* zer diren. Dena dela, helburu horiek ezagutzen dituztenen artean, hasierako negozioen ia lautik hiruk GJHekin lotutako helburuak, ekintzak eta adierazleak definitu ditu. Finkatutako negozioetan % 21 besterik ez dira.